


Zumaiako herri aldizkaria

1999ko iraila

BALAIKE

200 pta.

60. zenb.



● **Abertzaletasunari buruzko erakusketa Batzokian**

● **Pulpok babeslerik gabe ekingo dio Lehen Mailari**

● **Atxantatu taldeak maketa berria kaleratu du**

● **Oier Aizpurua Mundialetik at**

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

Zumaiako herri aldizkaria
BALEIKE

700
aldizkari salgai,
zuk erosteko zai

honako puntu hauetan:

OKINDEGIAK:

ERROTA:

Basadi
Erribera
Juan Belmonte
Alai

OGI BERRI:

Amaiko plaza
Basadi
Erribera

ARKUPE

LIBURUDENDAK:

AIZPURUA
LOITZ
OLANO
TAOSA

JANARIDENDAK:

ALAI
ZUBIMENDI

TABERNA - JATETXEAK

INPERNUPE
NARRONDO

BESTELAKOAK:

ARROA BEHEKO ESTANKOA
FOTO GAR

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro
Ane Osa

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea, Ingurugiro tailer eskola, Miriam Romatet, Jon Manzisidor, Fototeka, Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Iban Barrenetxea

Argazkiak

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntza zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

8.500

Hamar milarako mila ta bostehun falta. Ez da zifra txikia, eh? Ikusi al dituzue inoiz zortzi mila ta bostehun zakur batera? Ez litzateke giro izango haien zaunka eta iskanbilen artean. Edota imajinatu zortzi mila ta bostehun larrosa jardín batean. Loredun belardi bat baino gehiago baso arrosa bat emango luke. Pentsatzen jarri eta zortzi koma bost mila toaila zabaltzeko, galanta behar du hondartzak izan, eh? Zortzi mila ta bostehun toaila, zortzi mila ta bostehun pertsona hondartzan... hara, gutxi gorabehera zumaiar guztiok! Prozesio galanta egingo litzateke zumaiar guztiok bilduko bagina. Eta denok batera salto egingo bagenu, seguru hurrengo marea goran Erribera kalea urez gainezka legokeela. Zortzi mila ta bostehun pertsona, bada zerbait, eh? Hainbeste soldadudun bataloi batekin, zer ez genuke egingo guk!

Orain pare bat aste ez zineten zortzi mila ta bostehun zumaiarretatik gutxi izango, Errealaren tenporadako lehen partidua ikusi zenutenak. Han beheko lur bero haietan, eta hamaika hamaikaren aurka, puntutxo bat etxeratzea lortu zuten, ez dago gaizki. Egun batzuk lehenago ordea, eta leku berean, lorpena handiagoa izan zen. Hamarrek zortzi mila ta bostehunen aurka jokaturiko partiduan, arbitroa ere aurka izanda, Giraldira garaile atera zen, lehen hiru puntuak etxera ekarriaz. Orain guztion esku dago berandu baino lehen, geratzen diren ia seirehunak etxeratzea.



Eneko Dorronsoro


Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiko Udala



Zuzenketa batzuek

Azken *Baleikean* alkate aukeraketari buruzko erreportajearen ("R. Peña alkate hirugarrenez PSEren babesarekin") badira zenbait esaldi zuzenak ez direnak edo nahasteak eragin ditzaketenak. Hain zuzen ere, hauek hitzez hitz: "Azkenean ez da posible izan alderdi abertzaleen arteko akordioa" eta "EHk eta EAk euren zerrendaburuari eman zieten botoa, EAJrekin izandako negoziatioetan ez baitira akordio batera iritsi". Gauzak argi uzteko eta nahasketarik ez izateko Zumaiako Euskal Herritarrokek ondorengoa adierazi nahi dugu ohar honen bidez:

1. Betidanik EHren borondatea eta gogoa beste alderdiekin hitz egitearen eta negoziatzearen aldekoa izan dela, baina Zumaiako Udala eratzera ez dela inolako negoziatzeorik izan, ez EArekin, ez PNVrekin.
2. Hauteskundeon ondoren eta Udala eratu aurretik bilera ugari izan ditugula, bai EArekin (asko), bai PNVrekin (bakarra).
3. EArekin izandako bileretan hainbat gairi buruz aritu ginela: EHren eta EAren programak (adostasun puntuak), Udalaren funtzionamendua eta demokratizazioa, alderdi abertzaleen erronkak... Baina argi geneukan aurrerantzean bi alderdiok bakarrik ezin genuela gobernatu eta, horregatik, ez genuen ezer negoziatu.
4. PNVrekin bilera bakarra burutu genuela, alkatea aukeratu aurreko astean, PNVK berak deituta. Egia esan, oraindik ez dakigu zertarako deitu ziguten, itxura gortzeko ez bazen behintzat. Bilera hartan PNVko ordezkariak urteetan beraiek -ustez- egindako lanaren berri eman ziguten eta hasiera-hasieratik (beste ezerr buruz hitz egin aurretik) argi utzi ziguten baztertu egiten gintuztela aurrera begira. Guk, geure aldetik, argi utzi genien Euskal Herrian dabilzan haize berriak zenbaite-raino aldatu duten egoera, abertzaleen artean hitz egin beharra dagoela eta ez

genuela ezer bazterten, ezta Udaleko gobernuan parte hartzea ere, akordio batzuetara iritsiz gero. Itxura batera, nahikoa harrিতa geratu ziren gure proposamenarekin eta erantzungo zigutela adierazi ziguten. Gaur arte.

5. PNVrekin izandako bilera haren ondoren Udala eratu dela, alkatea aukeratu, ardurak banatu, bilerak egiten hasi eta oraindik zain gaudela, Zumaiako PNVK noiz erantzungo edo deituko.

6. Orain arte bezala, etorrikizunari begira era Zumaiako Euskal Herritarrok prest dagoela edozeinekin hitz egiteko eta programen inguruan negoziatzeko. Tamalez, beste batzuk ez. Batzuek lehengo lepotik burua.

ZUMAIKO EUSKAL HERRITARROK

Gilismo populismoa

Herrietako alkateek hartu duten popularitate handia XX. mende bukaerako politikagintzaren fenomenotako bat dela iruditzen zait. Politika pertsonalak alderdien gainetik eta askotan herriko biztanleen gainetik jartzen dituzte pertsonai horiek eta guztien buruan dugun karikatura Jesus Gil Marbellako alkatea da, nahiz eta toki askotan jasaten dute politika egiteko era hori.

Nahiz eta herriz herri eta hiriz hiri pertsonak aldatu, oso antzeko ezaugarriak izaten dituzte alkate hauek:

1. Alkate postuetara iristeko ideia edo proiektu pertsonalak alderdien interesekin bat egiteko itun antzeko bat.
2. Alderdiaren ideiekin edo proiektu politikoarekin identifikazio maila txikia alkatezara haitegai izan arte; behin alkatetza lortu ondoren zeharo "partidu gizonak" bihurtzen dira.
3. Politiko profesional bihurtzen dira eta legegintzaldi bat baino gehiago jarraitzen dute, baldin eta alderdiarekin egindako itunak ondo funtzionatzen badu.

4. Gizona izatea ezinbesteko baldintza izaten da, horrek lotuta daramatzen balizko balore sozialekin.

5. Adina eta itxura ez da oso inportantea, baina gaztea eta "sport" itxurakoa izanez gero hobeto.

6. Sarritan bururatzen zaizkien ideiak, gauzak edo kapritxoak aurrera ateratzen dituzte demokraziaren sistema erabiliz edo sarritan legeak ematen dien ahalmena erabiliz (nahiz eta oso dotorea ez izan), alderdikideen ixiltasuna edo kolaborazioa izaten dutelako.

7. Guztien hitz magikoa "efikazia" edo eraginkortasuna izaten da, horren atzean gobernu mota pertsonalista edo despotikoa izkutatzen da. Gestioa, garbiketa eta itxurakeria eraginkortasunaren oinarriak dira. Guztien herri eredia Marbella da (nahiz eta ez adierazi), azken urteetan bertan gertatu dena garaipen modura politikoki errentabilizatu daiteke jendearen artean.

Beste mila ezaugarri aipatu daitezke alkate jaun txit goren horiek deskribatzeko baina eman ditudanakin ondo adierazten da pertsonai politiko berri hauen profila. Hala ere, egongo da gure artean gugandik egindako lana eskertzen ez duena, badakizue esker txarreko jendez beteta dago mundua eta gure on beharrez egindako lana eta botatako izerdia ez dugu behar adina baloratzen. Egin dezakegun gauzarik onena bakarrik uztea da, egin behar dutena lasai egin dezaten ahalbideratzea, oztoporik jarri gabe, azken finean oker zabiltzate beraiegan sinisten ez duzenak, oso konfundituta zaudete eta.

Oharra: Abuztuaren 2an, "All the King's men" (Erregearen gizon guztiak) filma ikusi ondoren bururatutako idatzia.

ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA



Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA



HARAKINA
Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxa: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA

Zumaiako abertzaletasuna erakusgai Batzokian

Joseba Esnalek bi urte eman ditu 1931-1940 epeko dokumentuak bildu eta erakusketa antolatzeko



eman ditu atzera eta aurrera historia osatzen lagunduko zioten dokumentuen bila. Irailaren bigarren hamabostaldian erakusketa izango da ikusgai Batzokian. Berak aukeratutako epea arantzasu beterikoa da: 1931-1940. Espainiako Guda Zibilak Zumaian izandako eragina eta abertzaleek orduan bizitako nahigabeak eta injustiziak biltzen saiatu da. Zumaian izandako kanporaketei buruzko apunte batzuetatik abiatuta, Josebak balio handiko dokumentuak bildu ditu, idatzizkoak zein grafikoak. "Bildu ditudan objektu eta dokumentu gehienak Zumaiako jendeak gordeta zituenak dira. Beraientzat balio handia dute eta eskerrak eman nahi dizkiet erakusketarako utzi dizkigutelako". Josebak egindako lanaren oihartzuna Sabino Arana Fundazioraino iritsi da: "Harrituta gelditu dira hemen bildu ditugun zenbait dokumentu eta gauzekin eta eskatu egin dizkigute".

252 lagun kanporatuak

Espainiako Guda Zibilak eragin latza izan zuen Zumaian, inguruko herrietan baino askoz mingarriagoa. Horrela azaldu digu Josebak: "Zumaian 252 lagun izan ziren kanporatuak 1937ko otsailaren 13an eta 14an. Kontuan izan behar da orduan Zumaiak 3.000 biztanle inguru zituela. Inguruko

herrietan ez zen horrelako kanporaketa kopururik izan. Azkoitian 60 inguru izan ziren, Donostian 12 gutxi gorabehera. Zumaiakoa kasu bitxia izan zen. Orduan Udal Gobernuak osatzen zuten 13 zinegotzien erabakia oso gogorra izan zen. Familia osoak bota zituzten, normalean amak seme-alabekin, gizonak gudan zeudelako".

Josebak badaki zenbait dokumenturen edukia mingarria izango dela batzuentzat; beste batzuei malkoak eragingo dizkiela ere uste du: "Gure historiaren zati hau oso gutxi aztertu da eta dokumentu gutxi dago. Isilpean gorde da urte askotan, oraindik hurbilegi baitago denboran eta protagonista batzuk bizirik daudelako, baina uste dut badela garaia orduan gertaturikoa gogoratzeko eta egoera hura sufritu zutenei omenaldia egiteko".

Josebak ordu mordoxxka sartu ditu hainbat artxibotan, eta baita hura bizitako protagonisten adierazpenak biltzen. Informazio asko bildu du, baina amaierarik ez duen lana dela ikusi du, eta etorkizunean gehiago sakontzen saiatuko dela dio: "Oso pozik nago egindakoarekin baina oraindik asko dago egiteko eta ilusio handiarekin ari naiz".

◀ GORKA ZABALETA

 **ALBAITARITZA KLINIKA**
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-
Larrialdiak - 24 ordu - zentru etxean
Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Alberdi
Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

 **ANA**
ETXERO ZAPIAK
Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Udal batzordeak eratu dira

Aldaketarik ez badago zazpi izango dira legealdi honetan

Rikardo Peña Zumaiako alkatea aukeratu ondoren, Udal Gobernuko batzordeak zeintzuk izango diren zehaztu dira. Hauek ordea, oraindik aldaketaren bat edo beste jasan dezakete, alderdi politiko ezberdinekin egongo diren elkarrizketen arabera.

Dena den, momentuz eta behin behineko izaeraz, eratu diren zazpi batzordeak honako hauek dira: 1) Hirigintza, Lanak eta Ingurugiroa; 2) Ongizate Zerbitzuak; 3) Hezkuntza; 4) Zerbitzuak; 5) Euskera, Kultura, Komertzioa eta Turismoa; 6) Kirolak eta 7) Hazienda eta Pertsonala.

Euskal Herritarrok alderdiak Ingurugiroak bere batzorde propioa izateko proposamena egin zuen eta berdin Euskerako atalak ere. Hau kontutan hartu zen, baina momentuz behintzat aipatu zazpi horiek egongo dira. Honez gain, batzorde horiek orainarte baino irekiagoak izatea eskatu dute bai Euskal Herritarrok-ek eta baita Eusko Alkartasunak ere.

Batzorde bakoitzak presidente bat izan ohi du eta legeldi honetan ardura hori hartuko dutenak honako hauek dira: Hirigintza, Lanak eta Ingurugiroa: Rikardo Peña alkatea; Ongizate Zerbitzuak, Hezkuntza eta Zerbitzuak: Montse Arana (EAJ); Euskera, Kultura, Komertzioa eta Turismoa: Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ); Kirolak: Jose Javier Telleria (EAJ) eta bukatzeko, Hazienda eta Pertsonalaren buru Axier Esnal (EAJ) izango da.

Bestalde, honetaz gain Udalak ordezkari bat izan behar du era guztietako organu kolejiatuetan. Horrela, Urola Kosta Mankomunitatean, Rikardo Peña (EAJ) eta Xabier Alvarez (EH) izango dira ordezkariak. Gainontzeko erakunde- etako ordezkariak ondorengo hauek dira:

-Uren Kontsorzioa: Rikardo Peña (EAJ).

-San Juan Egoitza: Alkatea, Axier Esnal eta Montse Arana (EAJ).

-Urkome (Nekazaritza): Alkatea edo berak izendatutako ordezkariaren bat.

-Musika Patronatua: Alkatea da presidentea eta alderdi politiko guztiek dute ordezkari bat. EAJ-tik Maria Eugenia Arrizabalaga, Euskal Herritarroketik Uxua Ostolaza, Eusko Alkartasunatik Arantxa Gajate eta PSETik Enrique Rubio.

-Kontseilu Eskolarretako ordezkaria: Montse Arana (EAJ).

-Zumaia Lantzen: alderdi guztietako ordezkariak daude. EAJtik, Axier Esnal; EHTik Xabier Alvarez; EAtik Arantxa Gajate eta PSETik Felipe Gutierrez.

-Kirol Portua: elkarte honetan Udalak %50eko partaidetza du. Alderdi guztiek dute ordezkari bat. Rikardo Peña alkatea da presidentea eta gainontzeko ordezkariak dira: EHTik Gontxalo Torre; EAtik Abel Yeregi eta PSETik Felipe Gutierrez.

- Beheko Plaza Gizarte Zentrua: ordezkaria Montse Arana da (EAJ).

◀ IGOR URANGA

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018



Itzurun, 1 Tel. 143224



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

Musika jaialdiaren balantze baikorra.

XV. edizioa bete duen Zumaiako Musika Jaialdia amaierara heldu da. Balantze bat egiteko antolatzailea den Mertxe Argintxonarengana joan gara, eta ikastaroez, kontzertuez jendearen erantzunaz eta azkenik diru kontuez aritu zaigu.

Ikastaroak

Aurtengoak oso arrakastatsuak izan dira. Kantabria eta Nafarroakoak izan ezik, Estatu mailako komunitate denetatik etorri zaizkigu ikasleak. Hauek ia 80 izan dira eta gehienbat Valentziako komunitatetik eta Euskaditik etorri dira. Ikasle hauek oso maila handia erakutsi dute. Ikastaro aldetik jaialdia gorantz doa, hemen izan ditugun irakasleek diotenez, Estatu mailako 2. edo 3. jaialdirik garrantzitsuena da gurea. Hori dela eta argi dago azpiegieturak hobetu beharko dira, bestela estankatuta geratzeko arriskua dugu. Nik uste dut merezi duela proiektu honekin aurrera jarraitzea, zeren Jaialdia estankatuta geratzen bada mailak ere behera egingo du. Jaialdiarekin aurrera egin behar dugu, Zumaia eta inguruko herrientzat ere oso garrantzitsua baita, propaganda handia egiten baitiogu. Jada hirugarren urtea da guk jaialdia hartu genuela. Gure asmoa musika jaialdi honekin Estatu eta Euskadi mailako jendea ekartzea zen, ez atzerriko jendea bakarrik, eta hori lortu dugulakoan gaude, 80 ikasle horietatik Euskadikoak 20-25 izango baitziren. EGO (Euskadiko Gazte Orkestra) jo duten musikari batzuen bisita ere izan dugu. Hauek jaialdia nolakoa den ikusita, datorren urterako ikasle bezala etortzera animatu dira. Irakasleak ere aipatu behar dira. Urte honetan izan ditugun irakasleak gazte mailan aurki daitezkeen onenak izan



dira, eta dudarik gabe 10-15 egun hauetan duten dena eman dute.

Kontzertuak eta jendea

Kontzertuak oso ezberdinak izatean herri mailan asko zabaldu dira, popularragoa bihurtu dira. Kontzertu batzuk oso zailak dira egiteko, ze kontzertua ematen duten ikasle hauek Zumaiara etortzean, jo behar dutenaren ideiarik ez dute, eta bizpahiru egunetan preparatu behar dute errepertorioa. Noski horretarako ordu estrak sartu behar izaten dituzte, kurtsoek lehentasuna baitute. Jendea musika klasikoara hurbiltzea oso zaila da, hori dela eta musika kalera eraman dugu, bai Goikoren aurrean eman zen "kafe musikala", eta baita ere Aita Mari tabernaren aurrean jo zenarekin. Aipatzekoak dira baita ere egon diren bi kontzertu "popularrak": Donostiako Hamabostalditik ekarritako Luar Na Lubre taldea eta Kepa Junkera. Lehena oso polita izan zen baina berriz halako talde bat ekartzeko gogo guztiak joan zaizkigu, izugarritzko lana izan baitu, desbordatu egin gaitu.

Hamabostaldiak taldea ekarri zuen, baina lan guztia guk egin behar izan dugu, eta benetan oso gogorra da, nerbioekin akabatzeko modukoa. Kepa Junkeraren kontzertura jende gehiago etortzea espero nuen. Entzun dugu sarrera garestiegia zela, baina kontuan hartu behar da Kepa Junkerak kopuru finko bat kobratzen duela eta nola edo hala ordaindu behar zaiola. Aipatu behar da hemen inguruan sarritan jo duela azken hilabetetan, eta inguruko jendea ez zela uste zen hadina etorri. Hasiara batean gure asmoa Kepa Junkeraren kontzertua kanpora ateratzea zen, horrela sarrera merke-keagoa jarriz, baina beti ere eguraldia kontuan hartu behar da. Jaialdia suspenditzen bada, taldeak berdin kobratzen du, eta arrisku hori guretzako ezinezkoa da.

Diru kontuak

Balantze bat egiterakoan, diru galera bat izango dela argi dago. Hala ere esan behar da posible den diru galera txikiena dela, hau baino gutxiago ezin baitugu izan. Lantalde txikia da, lan guztiak guk egiten ditugu, gauzak antolatu, aulkiak mugitu, etab. Galera honen sortzaile haundienetakoa taldeek kobratzen duten kopurua da, oso handia baita. Aipatu behar da ikastaroen %60a baino gehiago autofinantziaz egin dela, eta horrek asko lagundu digu.

◀ JUAN LUIS ROMATET

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak.*

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

ad **AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

Zumaia-Orio, bertso-estropadak

Aurtengoan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak formula berri bati heldu dio eta Herri Artekoa izango da, hau da, banaka beharrean herri bakoitzetik hiruna bertsolariko taldeak arituko dira bertsotan. Helburua txapelketari lehia kutsua kendu eta bertso-giro jatorragoa sortzea da. Lehenbiziko fasean jokatu den norgehiagoketako bat ez da nolana hikoia, gainera: Zumaia Orioren aurka.

Hasierako fasean ia kanporaketa guztiak afari baten ostean jokatu dira, batez ere saiorako giro bero eta egokiagoa topatu nahi delako. Adi egon, zumaier bertsozaleok, Zumaia saioa hil honetan bertan izango baita, irailaren 24an, Etxe-Ona jatetxean hain zuzen.

Baina, zeintzuk dira Zumaia ordez-kariak? Eta Oriokoak? Zenbat talde daude guztira? Sarrerak non eros daitezke? Zenbat galdera, hainbat erantzun.

Zumaian oso talde polita osatu dela esan dezakegu, Jon Maia handiaren inguruan luxuzko hirukotea elkartu delako: Joxe Angel Salegi "Lizarreta", Joxe Joakin Aizpurua eta Jesus Iribar "Olalde". Laukote honetatik hiru bakarrik arituko dira saio bakoitzean kantari, baina saio batetik bestera partaide bat aldatzeko aukera izango dute.

Orioko taldea gaztea da, baina ez hain ezezaguna: Xabier Sukia (Zumaia Bertso Eskolan irakasle aritutakoa), Ibai Esoain, Euxebio Lasarte (Manuelen semea) eta Iñaki Gurrutxaga. Laukote honetan ere saio bakoitzean lagun bat geratuko da abestu gabe.

Bi talde hauez gain beste 22 dira Herri Arteko Txapelketa honetan izena eman dutenak eta azpimarratzekoa da Azpeitiak eta Hernanik hiruna talde aurkeztu dituztela. Hogeita lau taldeak sei multzotan banatu dira, eskualdeka, eta bigarren faserako hamabi talde sailkatuko dira. Gure eskualdean, esate baterako, honako bikoteak osatu dira: Zumaia-Orio, Zarautz-Zarautz eta Aia-Lasarte. Bi saio jokatu ostean, hiru taldek egingo dute aurrera eta beste hirurak bidean geratuko dira.

Txapelketa honetan badira beste zenbait nobedade: herri bakoitzak epaimehaian ordezkarri bana izango



Txapelketa honetarako "Lizarreta" itziartarra fitxatu du Zumaia Taldeak.

du, gaiak herriko gai-jartzaile taldeak jarriko ditu, ariketa bereziak frogatuko dira, eta abar.

Etxe-Onan 24an egingo den saiorako sarrerak laster jarriko dira salgai, 2.500 pezetan, Inperupe tabernan eta Aizpurua liburu-dendan. Bueltako saioa, Oriokoa, urriaren 9an jokatu da, Batea elkartean.

Irailan hasi eta Gabonak bitartean bertsozaleak gozatu ederra hartzeko aukera izango du, eta Zumaia taldea aurrean bada, orduan eta gehiago. Kontxako estropadatan aukerarik izan ez dugunez, ea bertsotan behintzat oriotarrei aurrea hartzeko modua egiten dugun, balizatik irten gabe, azken txanpan bada ere.

◀ XABIER AZKUE

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
francés
euskara
inglantiar
español
catalonián
suomi
basc
catalá
finnois
francés
anglés
catalán
francés
castellano
finnés
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

balezulo
importaturiko eropa eta artisautza

Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449

BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK

Leihoaren ...ahotik

Egia esan ez haiz oso kuriosua, baina tira, larriak agintzen dunian astuaren arrantza ere ederra den. Bastoiaren laguntzaz pixkanaka-pixkanaka higan eseri naun. Bion artian ipini diaten papela den ni laztantzia eragozten dinana, baina sentitu, nere pisua behintzat nabarituko den hire besoetan.

Kontxo, nere aurretik ere bisitarik izan den, hala esaten zidan atiak behintzat. "Hemen datza nere gorotza" edota "Josuk ere probatu zian" bezelako esaldien onduan, "Jonek Miren maite du" eta "Gora gu ta gitarrak" bezelakuak zizkan bere bizkarrian idatzirik. Nik ere hurrenguan boligrafuakin etorri biharko dinat.

- Puunba! ieehhihortzapuskautaaazika-taupalpelotipromeshorizemouznunziokpotiakakanunziokpotikakapotia-galduyu!

Hau da marka gero, egin beharrak ere lasai egin ezin! Saiatu naiz etxera iritsi arte eusten, baina aurrena erronda bat geratzen zala, ta gero espuela, ta azken-azkenekua, ta orain definitibua, ta... azkenian ahaleginian, plott! Baina ez da itxura, ni hemen kontzentratu nahian, eta bitartian kanpua buila ta zarata. San Pedruak ez al dia ba

errezatzeko? Benga danok etxea, bihar prozesioako goizo jaiki bihar da ta!

- Arrio! "tok-tok-tok"

- Zer deu uain!

- Hi arrio, mostua azeitunakin nahi al dek?

- Nola mostua!

Horixe bihar genian. "Ura baleo ardua erango, ta uran faltan, ura eran bihar". Kalaua nahikua ez zalata, portura sartu ezinik izaten ginaneko bajamarretan, bela sinistuko gendun behin tabernara iritsita mostua eran biharko gendunik.

- Prraaat!

Kontxo! kanpotik aitzeko ere... gure amak esango lukeen bezela, curioso zabilek gure politerruti. Baina seinale etorri biharrekua urruti ez dana.

Aahhh, halako batian! Egin din txulotik txulora jauzi, eta plott! uretan ito den. Paper txuria zikindu, bonbari "broop", bonbari "broop", kaka. Falta zana. Bai falta ere, urik ez.

Uran faltan, mostua eran bihar. Banatxian hurrenguantzat erregalua utzita. Erten aurretik eskuak garbitu, arpegia ispiluan ikusi, gelditzen

zaizkigun ila apurrak txukundu eta... kontxo! zer deu ba beste traste hau? In- In-sert-co-in zion, lastima nik txinoz ikasi ez izana. Baina euskeraz ere zerbait jartzen din eta! "Egoki hartzen du giza zeraren forma". Giza zera, zera..... Qué sera, seraaa?

Guk gaztetan gaur eguneko asmakizun hauek harrapatu izan baginu... Baina zer egingo zionagu ba! Bueno, banatxian, ikusi arte.

- Joño, arrio, gustua hartu diok tronuari, eh? Honezkeo azeituna ere hezurretan gelditu dek.

- Hi, aizak. Hoge duro suelto ba al daukak?

PERU BERAZADI

PROSTATA: atea da, ondo kostata.

Barkaziyotan gehiegi nekatzia komeni ez danez, aurrekuan atea gabe gelditu zana aprobe txatu bihar.

Ah! baina beste zea hori aprobe txatzeik ezta okurritu ere eh! Aldiko berri bat. Azken batian hoge duro zer da ba!



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Kaixo, Igor Uranga nauzue. Gaur ez dizuet kiroletaz hitz egingo, beste zerbaitetaz baizik...



Baleike productions international
jaremoring presents

*Mofli's
wedding*


starring
Igor Uranga & Idoia Murua

Txikitatikan nire etorkizuna garbi neukan:



Mutilzahar geauko naiz!!

Neskak erakartzeko gauza ugari egin nituen: kirolak...



...mozorrotu...



...hizkuntzak ere ikasi nituen...



Guana jare morer in the parking txetxual... jaaar!!

Eta utopiarri heldu nion!



txanpon baten trukeee!!

Alaitz eta Mainer

Batzuk Kubara emazte bila joaten diren bezala, ni Saharara ere joan nintzan, baina hemen ere jai!



Baditut nik pare bat txanpon!



No pueдор!! Ez naute maite, Kalimero sentitzen naiz


Jo ke mal rollooo!!

Mutilzaharren klubeko presidente izendatu behar nindutenean, nire ametsetako poxpolina aurkitu nuen. Jaaaaarr!!!




-Nola izena dezu?
-Idoia
-Nahi al dezu nerekin ezkondu?
-Uste nuen ez zenidala inoiz eskatuko!
-Al atakeer!

Ezkontza prestatzen hasi nintzen: jakirik onenak dastatu nituen...



Groonf, groonf, groonf!!

Eulaliren postre bikainaz gozatu nuen...



Sniiff, sniiff, sniiiff!!
Jaremoor!

Eta bazkalondorako musika talde aparta:



Jo ke mal rollooo!!

Lunamiela pasatzea Tosta Rikara goaz!!



Hasta luego Lukaaar!!



No ze vayan toavía, ke aún hay maz..



Kandemor aitatxoor!!

Laister...
Mofli's Wedding II
Koala txikiaren etorrera
Aretorik onenetan

Oier Aizpurua “Bulegoko erabaki politiko batek utzi gaitu Mundialetik kanpo”

Oier Aizpuruak piraguistak amets bat izan du azken bi urteotan: Mundiala jokatu eta Sydneyko Joko Olinpikoe-tatako txartela eskuratu. Horretarako 19 urte bete zituenetik Galiziako zentru berezi batean izan da entrenatzen buru-belarri, onenekin izateko gaitasuna duela erakutsi arte. Urtegieta lortutakoa Espainiako Federazioko bulegoetan galdu du. 21 urte baino ez ditu, etorkizun handia aurretik, baina iragandakoaren itzala luzeegia da oraindik.



❑ Oier, zer gertatu da azkenean Mundialera ez joateko?

Urte hasieran Espainiako Federazioan zenbait aldaketa egon zirenetik gauzak okertzen joan dira. Gaztela-Leongo zenbait lagun sartu ziren zuzendaritzan eta ordutik euren helburua izan da bertako piraguistak sartzea. Zamoran aritutako entrenatzailea jarri ziguten, eta honek bertako bi mutil jarri zituen titular, nahiz eta gure arteko sailkapenean 17 eta 18.ak izan. Une hartan selekzioetik kanpo geunden.

❑ Baina dena ez zen hor amaitu, ezta?

Espainiako Masterra zegoen jokoan eta guk parte hartzea erabaki genuen, geure kontura. Bertara joan eta Espainiako selekzioiko piraguari irabazi egin genion. Federazioak erabaki zuen bi piraguekin joatea Alemaniako proba batera. Irabazlea talde titularra izango omen zen Europako txapelketan eta Mundialean. Gu aurretik izan ginen,

baina besteak joan ziren Europako txapelketara.

❑ Federazioarengandik jaso al zenuten inolako azalpenik?

Bi taldeak kanpoan gelditu ginen finalerdietan, gu bi ehunekoengatik. Beste taldeari hiru segundo atera genizkion, baina Federazioarentzat hori ez zen nahikoa izan, ez ginelako finalean sartu. Beraientzat bi taldeak maila berean ginen eta horregatik bidali zuten K-4 ofiziala Europako txapelketara. Eta desastre bat izan zen.

❑ Eta zer erabaki zuten emaitza hori ikusita?

Entrenatzaileari Mundialerako talde berria osatzeko agindu zioten. Sei aste zituen horretarako. Gure taldea hartu zuen oinarritzat, eta beste taldeko bi mutil ere hartu zituen, bi asturiar. Gaztela-Leongoak kalean gelditu ziren. Federaziokoei ez zitzaien batere gustatu erabaki hori, eta berriro gu izorratzera joan ziren. Kontrol bat jarri

EGUZKI
 PUB
 Koktel bereziak
 Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin
 /elektrizitatea, s.l.
 instalazio elektrikoak
 instalazio musikalak
 antenak - parabolikoak
 akumuladoreak
 portero automatikoak
 telefonia

Televés
 Instalador
 Oficial

Erribera, 18
 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel./Faxa 943 - 143097
 629 - 450777

MoviStar

CANAL+

MoviLine

SATELLITE
 CANAL DIGITAL

ziguten abuztuaren 4an, jakinda fetxa horretan gu ez geundela marka egiteko moduan. Entrenatzaileak esan zigun ez ginela joango, prestaketa-rekin jarraituko genuela eta hilaren 10ean esango zuela nortzuk joango ginen eta ze denbora egingo genuen Mundialean. Federazioko kide bati erabakiaren berri eman zitzaion eta honek lasai entrenatzen jarraitzeko esan zigun.

“Guk azken urte honetan ikusi dugu Mundialean egoteko maila genuela, eta hor finalean sartuz gero Joko Olinpikoe-tarako txartela lortuko genuela, eta azkenean Federazioak berak ukatu digu aukera hori, azalpen zuzenik eman gabe”

3 Baina azkenean ez dizuete Mundialera joaten utzi.

Oso gogor entrenatu ginen aste horietan, hiru aldiz egunean. Lan handia egin genuen eta denborak asko hobeto genituen hiru astetan. Abuztuaren 4a iritsi zen eta Federazioetik deia jaso genuen: Kontrolera ez



agertzeagatik denak etxera. Gainera, zigorra jarri nahi zigutela esan ziguten.

Ezin genuen sinetsi. Bilera bat egin genuen beraiekin gure arrazoiak emateko, baina alferrik izan zen. Errua gurea zela esan ziguten, entrenatzaileak esandakoa egiteagatik. Pikutara bidali behar genuela esan ziguten. Horrek ez du zentzurik. Entrenatzaileak ez joateko esaten badigu, nola joan behar gara? Furgoneta lapurtuta? Taldean zortzi izanda, nola erabaki ze lau ariko diren? Baina ez zuten atzera egin

erabakian eta Mundialean ez zen K-4rik izan.

3 Eta zergatik horrenbesteko zalaparta K-4arekin?

Federazioko bulegoetan hartutako erabaki politikoa izan da. Gaztela Leondik etorritako zuzendaritzako kideek Galiziaren aurka egin dute hasieratik. Bien arteko tirabira handia dago piraguismoan, eta hauek gaztelarrak nahi zituzten piraguan. Lurralde bakoitzak ematen dituen piraguisen araberako dirulaguntzak jasotzen ditu, eta K-4an bi edo hiru sartzea garrantzitsua da. Bitxieta da Galiziaren aurka egin nahi zutela, nahiz eta gure barkuan galiziar bakarra egon. Baina taldea Galizian entrenatzen denez, dena nahastu egin dute.

3 Beraz, azkenean dirua da arrazoi nagusia.

Hala da. Federazioko talde teknikoan ez dago teknikorik. Sartu direnak politikoak dira, eta euren helburu bakarra dirua ateratzea da, babesleak aurkitzea.

3 Eta orain zer?

Orain, ezer ez. Etxean. Oraingo ez daukat berriro hasteko gogorik. Ez dakit Galiziara itzuliko naizen edo zer egingo dudan, guzti hau oso gogorra izan baita. Guk azken urte honetan ikusi dugu Mundialean egoteko maila



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



ENARA, S.L.

INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



expert 

ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretza, 6
Tel. 861078

genuela, eta hor finalean sartuz gero Joko Olinpikoetarako txartela lortuko genuela, eta azkenean Federazioak berak ukatu digu aukera hori, azalpen zuzenik eman gabe. Entrenatzen hasteko motibaziorik ere ez daukat une honetan. Oraingoz dena alde batera utzi nahi dut. Galiziako Federazioetik esan didate Espainiakoak deitzen ez badit beraiekin joateko, beraiek ordainduko dizkidatela gastuak. Baina oraingoz ez dut erabakirik hartu nahi.

■ Federazioan jende honek jarraitzen badu...

Asunto txarra. Espero dugu jendea konturatzea zer egiten ari diren. Mundialarekin gertatutakoa gogorra izan da. Batzorde Olinpikoan badute guri gertatutakoaren berri, eta egoera aldatzea espero dugu datorren urterako. Baina jende honek jarraitzen badu ez dago zereginik.

◀ **GORKA ZABALETA**



Bi urte Galiziako zentru berezi batean entrenatzen

Oierrek 21 urte ditu, baina bere ahotik erretako kirolariaren hitzak datoz. Erreta dago, merezitako aukera ukatu egin diotelako, entrenamenduetan lortutakoa bulegoetako azpijokoetan kendu diotelako. Eraitza usteleko abentura hau nola hasi zen kontatzeko eskatu diogu: "19 urte nituela Itxas Gainekin hartzen nuen parte. Espainia mailako zenbait probetan oso ongi ibili nintzen, Espainiako selekzioziko mutilen pare, eta urte bukaeran kontzentrazio batera deitu ninduten. Hilabete egon ginen Zamoran, Espainiako txapelketa prestatzen. Bosgarren izan nintzen selekzioziko mutil batzuen aurretik. Handik hiru astera esan zidaten Galiziar joateko entrenatzera urtebetez, 23 urtez azpikoekin. Entrenatzen oso ondo ibili nintzen baina probetan ez hain ongi. Bigarren urte honetan aldiz, oso ondo ari nintzen, baina azkenean ezertarako ez. Hara joateko beka batzuk daude, baina irabazi egin behar dituzu Espainiako txapelketan. Gainera, hiru hilabetero defenditu behar duzu beka hori emaitzekin, eta horrek presio izugarria eragiten du, ezin duzu lasai entrenatu. Gorputza eta burua erre egiten zaizkizu". Galizian eman ditu bi urteak, etxera etortzeko ia aukerarik gabe: "Negua Pontevedran egiten dugu, teknika lantzeko zentru berezi batean. Udar Federazioaren etxe batean izaten gara, laku batean, mendian. Entrenamenduak aldatu egiten dira urtean zehar, baina aste lasaienetan bi aldiz entrenatzen dugu egunean. Aste gogorrenetan, hiru aldiz egunean. 6:30etan hasita ordu bete korrika eta gero ordu erdiz abdominalak eta antzerakoak. Gero gosalduta eta berriro entrenatzera, bi ordu t'erdiz. Bazkaldu, siesta egin eta berriro bi ordu t'erdiz entrenatzera. Afaldu eta nahi duenak telebista ikus dezake, baina denak ohera joaten gara. Asteleheneetan izaten dugu atsedeen eguna. Irailean izaten ditugu oporrak, baina bestela urtean zehar astebete dugu etxera etortzeko eta gero egun batzuk, oso erreta gaudela ikusten dutenean. Gorputza baino gehiago burua erretzen zaizu".

ETXANIZ
ARROZTEGIA

Narrondo, 4
Tel. 943 86 03 12

- ateak
- tarimak
- neurrirako altzariak
- eta abar



Amertze
Foto

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

Baleike komiki lehiaketa elgoibarra

Bosgarren urtezbanatu ditugu Baleike komiki lehiaketaren sariak, eta oraingoan Elgoibarra joan dira sari nagusiak, iazko epaimahaikide izan zen Iban Barrenetxea elgoibartar gazteak irabazi zituen sari nagusiaren 50.000 pezetak. Beste elgoibartar batek, Daniel Garridok eraman zituen bigarren sariko 30.000 pezeta, eta zumaia onenaren 20.000 pezetak Iñigo Garciak eraman zituen hirugarren urtez. Sari hauetaz gain, 15.000 pezetako akzesita eman zitzaion Arkaitz Suarez donostiar gazteari bere komikiaren marrazkien kalitatea dela eta.



17 komiki eta maila ona

Inoiz baino partehartze handiagoa izan den honetan (17 komiki izan dira) zumaiaurren partehartze eskasa aipatu behar da. Herriko komiki bakarra jaso genuen, kalitate onekoa berau.

Hainbeste komiki jasotzearen arrazoietako bat, sarietako diru kopurua handitzea izan liteke, guzti hau, lehiaketa diruz lagundu duen Udaletxeari zor diogularik.

Datozen hilabeteotan izango duzue lehiaketako komiki onenak aldizkari honetan irakurtzeko aukera. Hilabete honetan bertan komiki irabazlea duzue zuen gozamenerako.

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

Tel. 860415



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabiloi eta herriko arzetan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

Taberna


Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA

TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81

Aukerak







Hau ez duk serioa, Pordi! Bizikleta urte osoan zehar zaindu eta erabili beharra zegoen. Txoko batean abando-natuta daukake hautsa jaten, eta poteorako behar dekenean matxuratu egiten zaik edo haizea falta zaik. Ze inaki, hiri ere haizea falta al zaik?



Talaieko esprintak ez du misteriorik: Mariaxunek prestatzen dizkigun pintxoak munduko onenak dira guretzat. Gainera, gero hondartzako mendate bereziari aurre egiteko indarrak berreskuratzea komeni da. Gazteak, indarrak berreskuratzea, ez tripa leporaino betetzea!!



Gora, behera, gora, behera! Batzuk galduta sentitzen dira lurrian eta mahaletara igo behar. Poteoko GoGoak izan ziren. Poteoko GoGoak, edo poteatzekoak?



GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Gure Txokoa


• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea



Kasu honetan hitzek argazkiak baino gehiago balio dute. Paulo, pauso horretan bakarrik asmatu huala esango niake. Meriturik ez diagu kenduko, ordea. Datorren urtean berriro eta hobeto. Beno, berriro eginez gero nahikoa.



Gatxi, hi asko ibiltzen haiz! Egin itzak kontuak!

Uda honetan sagardorik ez da falta izan. Zumaiaiko euskal jaian eta Oikiako Bertol Deunaren festetan litroka edan genuen, bihotzak piztu eta mingainak moteltzeko.



Ikusi duzuen bezala, batzuk umeak baino okerragoak dira.



English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334

 **HORBEL**
PAPER-DENDA

HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea
Tel./Faxa: 943 14 34 53

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

BALEIKE

1999ko iraila. 60. zenb.

Txintxilla:
“Erdialdean sailkatzea da helburua”

Pulpok babeslerik gabe ekingo dio Lehen Mailako denboraldiari

Pulpo eskubaloit taldeak bere historia luzeko erronka gogor baina ederrenari ekingo dio laster. Espainiako Lehen Mailan jokatuko dute zumaiarrek, Burgos, Zaragoza, Santander eta Kanarietako taldeen aurka. Iaz lortutako igoerak ilusio handia piztu zuen eskubaloizaleen artean, baina baita kezka bat baino gehiago. Aurtengo aurrekontua iazkoaren bikoitza izango da, eta zuzendaritza dirua harrien azpitik ere ateratzen saiatu da. Hala ere, erantzuna uste baino makalagoa izan da, eta Pulpok babeslerik gabe eta aurrekontua guztiz osatu gabe ekingo dio denboraldiari.

Juanma Txintxilla entrenatzaileari ez dio beldurrik ematen egoera honek: “Enpresa batzuk kopuru txikiak eman dituzte, baina babesle handirik ez dugu lortu. Udalak ere ez digu aparteko laguntzarik eman, eta kirol portuko enpresak ez omen du dirurik. Kirolgik 600 mila pezeta eman dizkigu Bidasoarekin lankidetzaz hitzarmena sinatzeagatik, eta Urpek ere diru laguntza igo du, baina hortik aurrera ezer gutxi. Rifa gehiago saldu beharko ditugu eta beste bide batzuk asmatu”.



Juanma Txintxillak 18 urte daramatza entrenatzen. Jubenil eta kadete mailetan aritu da gehienbat, eta horietxek ditu gustukoak, baina iaz lehen taldearekin izandako arrakastak eman dio Gipuzkoako entrenatzaile onenaren saria. Berak horrela ikusten du sari hau: “Lana arrakasta lortzen denean bakarrik ikusten da. Nik beste urte batzuetan lan gehiago egin dut, gusturago gelditu naiz eta inor ez da nitaz gogoratu. Jubenilekin edo kadeteekin lan handia egiten da, denboraldi hasieratik amaierara taldeak asko hobetu duela ikusten duzulako, nahiz eta sailkapenean azken postuetan sailkatu”.

Lehen Mailan jokatzeko erronka bat da jokalarientzat, baina entrenatzailearentzat ere bai: “Aurten gehiago eskatuko zait, lan gehiago egin beharko dut. Partiduak ezberdinak izango dira eta buruari gehiago eragin beharko diogu”. Dena den, Txintxillak konfiantza handia du taldearengan, iazko blokea mantentzen baita: “Lan asko aurreratuta daukagu. Fisikoki hobeto prestatzea falta zaigu, erritmoa askoz handiagoa baita. Iazko jokalaria bat baino ez zaigu falta eta bi jubenil

igo ditugu, Iñaki Lopetegui eta Jon Izaga. Iazko taldeari eustea pentsatu dut, nahiz eta Arrateko jugoslaviar bat ere eskaini zitzaigun”.

Helburuez mintzatzea ez da erraza izaten, baina Txintxillak ez du mailari eusteko arazo handirik ikusten: “Nik uste dut sailkapenean erdialdean izateko gauza garestia, baina beti saiatu behar gara ahalik eta postu onena lortzen. Iaz bigarren gelditu zen Burgosko taldearen aurka berdinketa lortu genuen lagunarteko partidu batean. Hori bai, serio entrenatu beharko dugu gure benetako mailara heltzeko”.

Oraingoz denboraldi-aurrearekin jarraitzen dute, Euskadi Kopari heldu baino lehen. Hor lehen partidu gogorak izango dituzte Bidasoaren aurka (bigarren taldea) -12an Zumaiari- eta Egiaen aurka. Gero, Liga etorriko da, benetako maila emateko ordua. Lehen partidua, Burgozen.

◀ GORKA ZABALETA



Julian Ruiz:

“Ibon Enbil jokalaria garrantzitsua izango da guretzat”

Bidasoa Girondinsen aurka neurtu zen abuztuaren 28an, Pulpok antolaturiko partiduan. Guk Julian Ruiz entrenatzaileari Iboni buruz galdetzeko aprobetxatu genuen. Honako hau esan zigun: “Ni ziur nago Ibon Enbil jokalaria garrantzitsua izango dela Bidasoarentzat. Taldea pisu propioa izango du. Une honetan asko ari da sofritzen, Ohorezko

Mailako taldeetan lan kargak askoz handiagoak direlako. Denboraldi aurrean gaizki ari da pasatzen, baina hori gainditzen duenean, eta ziur egingo duela, jokalaria garrantzitsua izango da guretzat. Taldearentzat lan egiten duen horietakoa izango da, edozein arazo konpontzeko balio duen horietakoa, diziplina handikoa. Berari eskatzen dioguna emango digula uste dut. Ez zaio eskatuko Cazali eskatu zaiona. Ibon oraindik egiten ari da jokalaria gisa, eta uste dut jarraitzaile guztientzat ezuste atsegina izango dela”.

Denboraldi honetarako ze helburu dituen ere galdetu diogu: “Iaz bezala ez sofritzea helburu bat da, baina hori gutxi da niretzat, ez naiz horrekin konforme. Ezker lateralak etorritakoan hitzegingo dugu eta orduan esango dizut noraino iritsiko garen”. Ezker lateralak etorri da –Julio Fis kubatarak—. Orain ikusi beharko da zer egiteko gauza diren.



◀ GORKA ZABALETA

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesezko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373

Zerbitzu Ofiziala
ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169

Itzurun
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446

ileapaindegia

IZETA

Urumea, 6 Tel. 862083

julio curiel

PELLUQUERO

Gizonezkoentzat
ileapaindegia
Erribera kalea, 23

Plaierotako txapelketa aurten ez antolatzeko arriskuan dago.

Zumaiako futbol taldea presidente berri bila

Plaierotako txapelketa ere kolokan dago



Zumaiako Futbol Taldeak bere presidentzia hartuko duen norbaiten bila dabil eta berekin batera bertan lan egiteko pertsona multzo bat. Orainarte presidente karguan izan den Jose Antonio Alberdik utzi egingo du hemendik aste gutxira eta bere postua hartzeko norbaiten beharra dago. Asmoa, denboraldi honetan bertan talde berri hori lanean hastea da, baina posible ez balitz hurrengoan beharko luke.

Zortzi urte egon da presidentzian Jose Antonio Alberdi eta berak azaldu duen bezala, "aldaketa baten beharra somatzen dut. Urte asko daramatzat karguan eta bada garaia beste norbait etortzeko eta lan talde batekin ideia berriak ezartzeko Zumaiako Futbol Taldean".

Izan ere, presidente berri bat egoteaz gain, lan egingo duen talde bat behar da. "Azken denboraldietan oso jende gutxi jardun gara lanean, sei lagun hain zuzen ere eta hau aldatu beharra dago. Horregatik oso garrantzitsua ikusten dut presidentzia hartzen duenak inguruan lan egiteko gogoia duen beste pertsona multzo bat izatea".

Zumaiako F.T.ren ardura hartu nahi duenak lehen bait lehen agertu beharko du, denboraldia hasteko aste gutxi geratzen baitira. Aurten, bost talde izango dira: kadete mailan bi,

jubeniletan bat, Regional mailako taldea eta emakumezkoena bestea.

Urte guzti hauen balorazio bat egiterako orduan, Alberdik positiboki baloratzen du egindakoa. "Ni presidente nintzela jeitsi ginen Preferentetik Regionaletara. Lehenengo urte horretan, taldean kanpoko jokalaria zeuden; guztiak kanpoan utzi eta taldea jokalaria zumaiarrez bakarrik osatzeko erabakia hartu genuen".

Presidentearen esanetan, tristura eta kolpe handiena azkenengo denboraldian jaso zuen. "Regionaleko taldeak Preferentera igotzeko aukera esku-eskuan zuen baina azkenean ezin izan lortu helburua; benetan kolpe gogorra jaso nuen gertaera honekin". Gainontzean, zortzi urte hauetako balantzea ona dela aitortu du Jose Antonio Alberdik.

Plaiorerik ez

Honekin batera, Zumaiako Futbol Taldeak plaierotako txapelketa antolatzeari utziko dio aurten. Honen arrazoi nagusia, jende eta denbora falta da. Lehenago aipatu den bezala, sei pertsonen artean talde federatuak, eskoletako txapelketak eta plaieroak antolatzen zituzten. Sei horiek gainera, klubeko lanaz gain, beste zeregin batzuk zituzten eta ikusirik plaierotako txapelketa batek eskatzen duen jarraipen egokia ezin zela egin, txapelketa hori ez antolatzea erabaki dute.

Erabaki hau ulertua izan dadila eta norbaitek antolaketa lanak hartu nahi baditu, klubeko ateak irekita dituela argi utzi nahi du Zumaiako Futbol Taldeak.

◀ IGOR URANGA



Loredenda
JEMAR

LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1

Tel. 860375



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Zumaia-Zestoa-Azkoitia triatloia hilaren 25ean jokatuko da

Zumaiako hainbat atleta arituko dira bertan

Urtero bezala, uda amaiera aldean antolatu ohi da Zumaia-Zestoa eta Azkoitia arteko triatloia. Aurtengoa bostgarrengoa da 1995.urtean hasiera eman zitzaionetik eta denbora tarte honetan gero eta bultzada handiagoa hartzen joan da. Parte-hartzaileen maila etengabe igotzen doa eta ikusle nahiz komunikabideen artean ere garrantzi dezente hartu du.

Aurtengo edizio honetan ez dago berrietasun handiegirik. Zirkuituari dagokionez, triatloiariek betiko ibilbidea osatu beharko dute: hasiera Zumaiako Arbustaingo aldapan emango zaio igeriketa saioarekin (1,5 kilometro). Ondoren, bizikletak hartuta, 40 kilometro egin beharko dituzte. Bukatzeko, Azkoitiko kaleetan zehar hamar kilometroko korrituko dituzte helmuga puntura iritsi baino lehen.

Gizonezko nahiz emakumezkoetan, sari berdinak banatuko dira. Garaileak 65.000 pezeta, garaikurra eta loreak jasoko ditu, bigarrengoak 50.000 pezeta, garaikurra eta loreak eta hirugarren sailkatuak 35.000 pezeta garaikurra eta loreak. Seigarren posturarte sariak daude.

Irteera arratsaldeko 5.30etan izango da eta izena eman nahi dutenek Zumaiako Lubaki kiroldegira jo beharko dute. (Tlf: 943-862021. Fâx: 943-862456). Izena emateko epea irailaren 18an amaitzen da eta hau egiterakoan, federatuek 2.000 pezeta

eta federatugabeek 3.500 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Zumaiar talde zabala egongo da irteera puntuan eta okerrik ezean Iñaki Aizpurua, iaz Zumaiako lehen triatloilaria suertatu zena ere bertan izango da.

◀ **IGOR URANGA**



Laburrak

Zakila bira urria hasierako izango da

Triatloiko proba baino juxtu astebete beranduago korrituko da Zakila Bira lasterketako hirugarren edizioa, urriaren 2an hain zuzen ere. Korrikalariek hogeik kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Zumaian hasi eta bertan amaitzen den lasterketa honetan. Iaz, gizonezkoetan Durangoko Pablo Gomez gertatu zen irabazle eta Isabel Dumall emakumezkoetan. Zumaiarren artean berriz, Jon Ulazia eta Juan Manuel Lopez elkarrekin heldu ziren helmugara. Beraiek izan ziren lehenengo zumaiarrak.III. Zakila Bira lasterketari arratsaldeko 5etan ekingo zaio.

Futbol eta eskubaloi txapelketa

Uda partean, abuztuan zehatzago esanda, futboleko eta eskubaloiko txapelketak antolatzen dira. Lehenengoari dagokionez, aurtengoan lau taldek hartu dute parte: Eibar, Real Union, Real Sociedad B eta Beasain eta garaipena eibartarrentzat izan da. Eskubaloian berriz, Bidasoa eta Bordeleko Girondins taldeen arteko neurketa jokatu zen polikiroldegian irailaren 28an.

Irundarrak nagusi tu ziren, 23-17ko emaitzarekin eta Ibon Enbil zumaiarrak bi gol sartu zituen.

Dinastia Etxabe

Pilota txapelketa honetako azken neurketak ere aurreko hileko azken asteburuan jokatu zire. Pala motzean, Zozaya eta Erburu, 40-36 gailendu zitzaizkien Osakar eta Galan-i. Eskuz binaka berriz, Varela eta Jaiok osatutako bikoteak 22-10 irabazi zien Castellanos eta Navarrori.

Euskadiko txapelkun

Itxas Gain taldeak Abiadurako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen abuztuaren 21ean Legutioko urtegian. 200 eta 500 metrotako distantzietan korritu ziren probak eta hauetan piraguista zumaiarrek emaitza bikainak lortu zituzten. Ribadesellako nazioarteko lasterketan ere Itxas Gain bigarren izan zen eta Sanabriakoan berriz, hirugarren.

KABI
T(BERN) - ZUM(A)I(A)
Tel. 143379

KALARI
Erribera kalea, 16
Tel. 862517

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Kresala
— edergintza —
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Xabier Olaizola

Baserritarra izateko jantzi beharra zikat. Eta atxurra beti eramaten diat. Ta bestela saiatu behintzat iten nauk.

baserritarra izateko jantzi beharra al daukazu, edo nahikua dezu atxurra eramanda?



Xanti Aizpurua

Nik ez daukat jantzi beharrik. Ni baserritar sentitzen nauk. Ganautik bizi gaituk gu, hor ez zioz inungo lotsik.



Rosa Mari Astigarraga

Ez dao biharrik. Ni nahiko baserritarra banaiz bestela ere.



Jon Larburu

Nik baserritarrez jantzita, atxurra saldu iten diat, lurra jorratu nahi dunantzat



Luix Zearreta

Ni kolore hauekin identifikatua sentitzen nauk. Nahiko kaxero banauk.



Ander Egaña

Nik jantzi biharrik ez zikat, neska bat dek nik bihar diatena.



Andoni Txintxilla

Euskal jaia ez al da ba? Nik ez daukat baserritarrez jantzi beharrik euskalduna izateko.

KUKUTZ
serigrafia
*kamisetak
*txiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

LIBRERU DENDA
AIZPURUA

kmk99
Oreretan
materiala salgai!

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569



kamisetak
mantalak
galtzerdiak
eta abar



charles baudelaire

AMT

" b " letra aitzakitzat hartuta

ZINE FORUM

1999/2000 denboraldia martxan

Urriaren 7an izango da zine forum denboraldi berriko lehen saioaren data. Hilabete horretan *Dioses y monstruos* eta *Amigos y vecinos* filmak eskaintzea espero da. Bi film hauek aurreko urteko Donostiako Zinemaldian aurkeztu ziren eta biek ere kritika eta publiko aldetik sekulako arrakasta izan dute.

Dioses y monstruos James Whale zuzendari ingelesaren azken egunen kronika bat da. 30eko hamarkadan *El doctor Frankenstein* eta *La novia de Frankenstein* filmak zuzendu ondoren, bere homosexualitatea zela eta, Hollywoodetik baztertu zuten. Etxeko jardina zaintzen duen gazteagatik sentitzen duen desioa eta baita ere jasaten dituen sufrimenduak kontatzen dizkigu film intimista bikain honek. Donostian aurkeztu zen pelikula onena izan arren, epaimahaiak aktore onenaren saria besterik ez zion eman, hori bai ondo merezitako saria, Ian McKellen aktore britainiarra benetan izugarria baitago. Handik hilabete batzuetara Hollywood-eko akademiak gidoi onenaren oscarrekin saritu zuen Bill Condon-en lan hau. Behin eta berriz ikus daitekeen pelikula ederra.

Amigos y vecinos-en gaia guztiz ezberdina da. Neil LaBute zuzendari gaztearen pelikulan bikote harremanak aztertzen dira. Sexua da protagonisten buruan biraka dabilen gaia. Ohekideak txandatu egingo dira, harreman berriak hasiko dituzte, maitasun istorio berriak, masturbazioaz arituko dira... Aktore ezagunak aurki daitezke film honetan: Ben Stiller (*Algo pasa con Mary*), Jason Patrick (*Sleepers*), Nasstasja Kinski (*Paris, Texas*), etab. Pelikula honekin LaBute Todd Solondz (Gure pantailan eskaini nahi den *Happiness* ikaragarriaren egilea), Peter Berg (*Very bad things*) eta beste zuzendari batzuek osatzen duten talde baten partaide bihurtu da. Hollywood-en ipurdian grano handi eta mingarri bat da zinegile talde hau, bertako gizartean tabu bat den gai bat jorratzen baitute, sexuarena alegia. Inongo moralinarik gabe tratatzen dute gai hau, eta horrek egiten die min amerikarrei, ustelduta dagoen gizarte baten barnea erakusten baitute.

Bi film hauek izango dira, hasiera batean, urrian eskainiko direnak. Hala ere, Ostarrena Zine Klub taldearen agendan beste film bikain ugari aurki daitezke: Robert Altman-en *Cookie's fortune*, Emir Kusturica-ren *Gato negro, gato blanco*, Eric Rohmer-en *Cuento de otoño*, Sam Raimi-ren *Un plan sencillo* eta posible izanez gero Sam Peckinpah-ren *Grupo Salvaje*.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz


Desioen hiria
Gorrotoa lege
Laura kanpoan da
Coca-Cola erdi aroan
Putzu



Isidro Rikarte
 Yon Etxaide
 Jabier Muguruza
 M.A. Mintegi
 Txillardeggi

Gaztelerez

Hotel Nirvana
Las gastritis de Platón
Voces de ballena
Todos los sueños del mundo
Tres cantos fúnebres por Kosovo



Manuel Leguineche
 Antonio Tabucchi
 Edorta Jimenez
 Javier Reverte
 Ismail Kadaré

Haurrak/Gaztetxoak

Singleton kapitainaren ibilerak
Urruzuno
Eguzkia Puxtarrian
Pako belearen bihurrikeriak
Otsogorritxo



Daniel Defoe
 Jesus Mari Etxezarreta
 Karlos Santisteban
 Iñaki Zubeldia
 Pello Esnal

Tel. 143278

Maité
 ileapaindegia

MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- .Banakakoak
- .Kolektiboak
- .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14Tel. 860074 - 861569

iraila

ERAKUSKETA:

"ZUMAIA-ABERTZALETASUNA 1932-1940"

Erkibe Kultur Elkarteak antolatua.

► Hil osoan zehar

Batzokian

DANI CARBALLOREN ERAKUSKETA

► Irailaren 17tik aurrera

Oxforden

KONTZERTUA

Naroa Enekotegi mezzosopranoaren

"Barrokoaren opera-arien, opera bufoen eta dramatikoaren artean jardunez"

► Irailak 10, arratsadeko 20:00etan

Aita Mari aretoan

HAUR JAIALDIA

► Irailak, 12, igandea, arratsaldeko

18:00etan

Eusebio Gurrutxaga plazan

DANTZALDIA

► Irailak 19, arratsadeko 18:30etan

Eusebio Gurrutxaga plazan

"ZUMAIA 650-HITZALDI LIBURUA"REN AURKEZPENA

► Irailak 24, ostirala, arratsadeko

19:00etan

Forondan

ARTADI AUZOKO JAIK

► Irailaren 29 inguruan.

Zumaiko Musika Eskolak 99-00

ikasturteko matrikula epea zabalik.

► Irailak 1etik aurrera, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 6etatik 8etara

Ubillos

ELIKADURA ETA OSASUNARI buruzko txarлак.

► Urrian zehar

Siwa belardendan

(txarлак dohainik dira, baina izenematea ezinbestekoa da Urriak 8a baino lehen.)

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta

16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16.00 -

20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta

16.30 - 19,30

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzuzkoen abantailak erabilita

- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

fidatzeko baimen guztiak



ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 0 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 96 07 78 - (943) 14 09 40


TXINGURRI
Koof. Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiralzeleien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Baiorazioak

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomaturia

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3. blokea

RPS: 034/97

Tel. 943 86 16 91

ILE APAINDEGIA

herea
Uranga

Etxezarreta, 19

Tel. 862342



Atxantatu maketa berria

Hasiera harrera onaren ondoren izandako jarraipen eza ikusita, Atxantatu taldeko boskoteak maketa berri bat ateratzea erabaki du. "Lehenengoaren oihartzuna jada isildu denean, ez genuela gehiegi aprobe-txatu ikusi dugu, eta beharrezkoa iruditu zaigu grabaketa berri bat egitea", diote taldekideek. Maketa hura atera zela bi urte juxtu betetzen diren garaian, bigarren lan indartsu batekin datoz: "estiloz gogorxeagoa da aurrekoa baino, pentsa, grabatze-rakoan geu ere harritu egin ginen pixka bat, "hau gogorra dek, eh!" genion. Baina lanarekin oso gustora geratu gara. Bai grabazioaren kalitate-arekin, baita abestiek ere, kontentu gaude. Gainera bigarren esperientzia izanik lasaixeago hartu dugu, eta abestiak borobiltzeko garaian ere instrumentu gehiago sartu ditugu, bai bongoak, gong-a... gure gustorako behintzat efektu politak lortuaz".

Ale hau irteterako kalean izango den maketa, zazpi abestiz osatzen da. "Azken bi urte hauetan osatutako abestiak dira guztiak. Kontzertuetan aurreko maketakoez eta berri hauez aparte beste zaharragoren bat edo beste ere jotzen dugu, baina maketa berri hau osatzerakoan egokiago iruditu zaigu dena abesti berriz osatzea. Estilo aldetik antzekoagoak dira elkarren artean, eta gainera

aukeraketa bat egin beharra zegoenez, halaxe irten da. Zazpi abesti, hogeita hiru minutu pasatxo irauten duen konpakto batean".

Izan ere konpakto egituran soilik atera dute bigarren lan hau, "jada ez baitzi-tzaigun interesgarri iruditzen kasetak ateratzea. Kalitate aldetik diferentzia nabarmena da, eta azken finean hori da garrantzitsuena. Gainera gaur egunean etxe guztietan daude konpaktoak, eta alde horretatik ez dugu inongo arazorik ikusi. Aldea kostuan, eta ondorioz salmenta prezioan dago, bain mila pezeta zer dira ba?".

Talde zumaiarraren lan berri bat beraz kalean. Ea aurrekoaren arrakasta berdina izaten duen. "Hainbestekin konformatuko ginatete noski, baina ditugun lagunekin, ez dugu dudarik. Ahaztu gabe, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen laguntza eskaini diguzuen guztioi. Ez goaz izenak aipatzen hastera, seguru norbaitez ahaztuko ginateteke, baina badakizue zeintzuk zareten, eta bestela konturatuko zarete berriz ere laguntza eske joaten garenean. Azkenik esan nahi genuke maketa hau Agiri eskeini nahi diogula".

◀ ENEKO DORRONSORO

TXOKO TABERNA

Artadi auzoa
Tel. 862189

AROTEGIA
Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

ZALLA
Taberna - Erreteria

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

Nikol Enea

TABERNA

Amaiako plaza Tel. 861440

GIULIANO

Paperdenda LIBURUDENDA
Aldizkariak
Fotokopiak Baltasar Etxabe, 7
Enkuadernazioak Tel. 143191



Zumaiaren historiako data tamalgarrienetakoa da 1941 urteko otsailaren 15-a. Jakina denez gau haizetsu hartan Donostiara zihoan tren a Urola ibaiara erori zen. Kolpeak hartuta hala itota, jende ugari hil zen. Oraingo trenak garai hartakoak baino seguxeagoak direlakoan gaude, eta istripuak izateko aukerak urriagoak izatea espero dugu. Hala ere, noizean behin bandazo ederrak ematen ditu tren madarikatu horrek...

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! ea tarta goxoa
nork eramaten duen!!!

TXAPARTEGI GOZOTEGIAK emandako azken tarta **Feli Uriarentzat** izan da. Berak asmatu zuen bezala, argazkian agertzen zen frontoia Oikiakoa zen (noski!).



Baleikeko zein lankide ezkontzen zaigu hilabete honetan?

Gizarajo honen izena asmatzen duzuenon artean **Txapartegi** gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure buzoian edota Txapartegin bertan uztea, irailaren 24a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

BALAIKE

1999ko iraila, 60. zenb.

motxian hi!



zein: Francisco Rabanera

zer: Expediente X

Nola: Pako Rabán

Eklipsearen eguna munduaren azken eguna izan behar omen zuen, eta oraindik hemen gaude...

Bai, alde batetik arrazoia duzu, mundua ez baita lehertu, baina bestetik argi dago zerbait arraroa gertatu dela, zerbait ez ohizkoa, eklipsearen egunean heldu bait zitzaidan uhin extrasensorial bat nire burmuinera. Uhin horrek zioenez Gipuzkoako herri batean Igor izena zuen gazte bat ezkontzekotan zegoen. Ekintza hori benetan katastrofikoa izan daiteke!

Munduaren akabera?

Okerrago, Koalaren etorrera!

Nondik nora bururatu zitzaizun lurraren amaiera data horretan izango zela?

Oso erreza da. Nostradamus-en predikzioetan oinarritu behar da. Noski, jende arruntak ez du liburu hori behar den bezala irakurtzen. Predikzio hauek benetan ulertzeko aurretik zeremonia bat bete behar da. Pauso hauek bete behar dira: aste oso batean leiho eta altzaririk gabeko gela batean sartu behar zara. Zure laguntza bakarra Ana Belen eta Victor Manuel-en "La puerta de Alcalá" izango da. 666 aldiz entzuten duzunean, liburua irakurri behar duzu, hori bai, atzetik aurrera, behetik gora eta eskuinetik ezkerrera irakurri behar da. Ondoren iluminatua sentitzen zara, dena ulertzen duzu.

Eta zer ulertu zenuen?

Ba data horretatik aurrera, jende dena trajebaño eta txankletak jantzita ibilkiko dela. Hitz gutxitan lurraren amaiera.

Nola sortu zitzaizun fenomeno paranormalen zaletasun hori?

Gehienbat Jimenez del Oso-ren programak ikusita. Carlos Jesus izeneko guru bat ere bixitatu nuen. Berak eskuekin "dzu-dzu" egin eta Mikael-en bihurtzen zen, berriz "dzu-dzu" egin eta Kritofer-en. Gainera Ratikulin planeta-ekin errez konektatzen zen. Buruaren muga denak apurtu zizkidan errebelazio bat izan ze.

Azkenik, noiz izango da hurrengo "Munduaren amaiera"?

Formula matematiko bati heldu behar zaio. Egunkarian datorren denboraldirako moda kolekzio berria aurkeztu behar dudala irakurtzen duzunean, ba data hori baino bi aste lehenago.

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 861670

xirula



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

Zumaiako Udal Musika Patronatoa
Zumaia (Gipuzkoa)

ZUMAIA 99:|

XV.
Nazioarteko
musika
jaialdia

*Mila esker
zumaiar guztioi
zuen partehartze eta laguntzagatik*

99/00 euskara ahora ahora euskara



CURSOS DE EUSKARA IKASTAROAK

Zumaiako Txomin Agirre
AEK euskaltegian
Erribera kalea 1 BIS Behea.
TLFONOA: 943 86 02 48

CURSOS DE
EUSKALDUNIZACION
2 horas diarias

EGA
IKASTAROAK
Egunean 2 edo 3 orduz

I ETA II HIZKUNTZ
ESKAKIZUNAK
Egunean 2 edo 3 orduz

ALFABETATZE
IKASTAROAK
Egunean 2 orduz

UDALAK BEKAZ LAGUNDUAK BECAS DEL AYUNTAMIENTO

Matrikulatzeko azken eguna: IRAILAK 24
Ultimo día de matriculación: 24 DE SEPTIEMBRE

HORARIO DE OFICINA: 10-1 / 5-8



matricúlate en aek

centros e internados de aprendizaje

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK


PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO




Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko atek eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA